

594/2025 EBAZPENA, apirilaren 8koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen otsailaren 17ko 313/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 5eko EHAA 44 zk. eta 2025eko martxoaren 12ko EAO 61 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko apirilaren 2an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 8a.



 **Osakidetza** ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.

KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA.

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Zuriñe Fernández Fernández de Leceta and.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.